

DIRU SARRERAK

Ordainketa bakarreko diru sarrera bat izango litzateke. Gure enpresak ez dituelako bazkiderik, hileroko diru kantitate jakin bat ordaindu behar dutenak, hau da, produktuagatik behin ordaintzearekin nahikoa da. Diru sarrera hauek sortzeko, gure enpresak hainbat modu erabiltzen ditu, hala nola, aktiboen salmenta, publizitatea sare sozialen, kontaktuen edota azoken bitartez.



Gure produktuen prezioak, ez lirateke finkoak izango, dinamikoak baizik, zeren eta ikastetxe batean eskari handia egon daiteke eta baita ere norberaren karkasak pertsonalizagarriak direnez, prezioak aldatu egingo dira, karkasa bakunekin alderatuz.

Jasoko dugun diru-laguntzak, enpresaren kide bakoitzeko, 1500€-koa izango litzateke, baina, 18 eta 30 urte bitartekoak badira kide horiek, %15-a gehitzen zaie, beraz, taldea osatzen duten kide bakoitzak izango dituen laguntzak 1725€.